

**CONVENIO de colaboración entre el Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda, Paisaje y Proyectos Estratégicos de Administración de la Comunidad Foral de Navarra y el Ayuntamiento de Zúñiga para la elaboración del Plan General Municipal de Zúñiga**

---

En Pamplona, a 19 de septiembre de 2022.

**REUNIDOS:**

De una parte,

Don José María Ayerdi Fernández de Barrena, Consejero del Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda, Paisaje y Proyectos Estratégicos de la Comunidad Foral de Navarra.

Y de otra,

Pedro María Oteiza Díaz, Alcalde del Ayuntamiento de Zúñiga

**INTERVIENEN:**

En nombre y representación Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda, Paisaje y Proyectos Estratégicos de la Comunidad Foral de Navarra y del Ayuntamiento de Zúñiga respectivamente:

**EXPONEN:**

1. Que conforme a lo establecido en el Decreto Foral Legislativo 1/2017 de 26 de julio, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley Foral de Ordenación del Territorio y Urbanismo, y en particular en sus artículos 17, 19, 20.2, 21 y 66.3, las partes manifiestan su deseo de colaborar en la elaboración del Plan General Municipal mediante la suscripción de un convenio de colaboración urbanística, asumiendo los términos señalados en el mismo.
2. Que ambas partes acuerdan suscribir el presente Convenio de colaboración, conforme a lo dispuesto en el Decreto Foral 145/2002, de 2 de julio, por el que se regula la cooperación interadministrativa en la elaboración y aplicación del planeamiento urbanístico, con arreglo a las cláusulas que a continuación se señalan.
3. Que a tal efecto el Ayuntamiento de Zúñiga, conforme a lo dispuesto en el artículo 4.3 del Decreto Foral 145/2002, de 2 de julio, adoptó el correspondiente acuerdo en fecha 9 de abril de 2021 en el que manifiesta su intención de elaborar el Plan General Municipal (en adelante PGM) con sujeción a las condiciones establecidas en el mencionado Decreto Foral.

## ESTIPULACIONES:

### PRIMERA.- Principios Generales

El PGM de Zúñiga deberá partir de los criterios generales y principios inspiradores del urbanismo, para adaptarlos a la realidad actual municipal territorial y urbanística.

La metodología de redacción del PGM propondrá un adecuado y legal nivel de participación pública con un seguimiento continuo por el Ayuntamiento.

### SEGUNDA.- Objetivos

Se describen a continuación los objetivos que las partes acuerdan recoger en el presente convenio, si bien debe tenerse en cuenta que podrán modificarse por razones debidamente fundadas que guarden relación con las materias urbanísticas y de ordenación del territorio, previa decisión de los órganos competentes.

Los objetivos municipales podrán variar en base al análisis y diagnóstico de la información y participación pública. Estas modificaciones no implicarán por sí mismas incremento del presupuesto estimado, aunque podrá pactarse motivadamente dicho incremento cuando se considere justificado.

#### 2.1. Objetivos de interés foral:

- El PGM responderá a los **objetivos y principios** generales del Texto Refundido de la Ley Foral de Ordenación del Territorio y Urbanismo, aprobado por Decreto Foral Legislativo 1/2017, de 26 de julio, en adelante TRLFOTU, y en concreto tendrá como objetivo la definición de una Estrategia y Modelo municipal de ocupación del territorio, el desarrollo sostenible del municipio y la mejora de la calidad de vida de sus ciudadanos.
- El PGM fomentará, respecto al **desarrollo sostenible**: El crecimiento compacto del núcleo, la rehabilitación de sus edificios, las actuaciones de mejora de eficiencia energética, la reducción de la vulnerabilidad a los efectos del cambio climático, la movilidad sostenible, la accesibilidad y la preservación del Paisaje.
- La elaboración del PGM se desarrollará conforme a las necesidades y aspiraciones de la sociedad, suscitando la más amplia **participación** ciudadana, que deberá adecuarse a las características de la población.
- El PGM incluirá criterios de **urbanismo inclusivo**, incorporando al espacio público las demandas que surgen de la cotidianidad de las personas, fomentando la autonomía de todas las personas y dando respuesta a las necesidades sociales de los sectores de población más vulnerables (por razones de sexo, edad o dependencia).
- Respetará y desarrollará las previsiones, directrices y determinaciones establecidas en el Plan de Ordenación Territorial, Zonas Medias (POT-4) en los ejes estratégicos considerados: Patrimonio natural y cultural, Sistema urbano e Infraestructuras.
- El PGM deberá ser un instrumento **sencillo y práctico**, comprensible por la población y útil para el mantenimiento de la actividad (social y económica) en localidad, deberá establecer los mecanismos de ordenación, regulación y gestión de suelo, que puedan favorecer el mantenimiento de la actual población y potenciar la atracción de nuevos

Orden.

C/1

habitantes, todo ello en atención a los condicionantes de población (densidad e índice de envejecimiento) del municipio de Zúñiga.

- El PGM establecerá la ordenación pormenorizada del conjunto de suelo que se clasifique como urbano y urbanizable en el municipio, estableciendo este objetivo como principio en la EMOT.
- El PGM atenderá al entorno territorial en el que se encuentra, potenciando la relación con los municipios próximos (Mendoza, Lana, ...) con el objeto de crear redes que fortalezcan su posición territorial frente al despoblamiento.
- Previsión y actualización, en su caso, de las **Infraestructuras básicas** (abastecimiento, saneamiento, residuos...) demandadas por el Modelo urbanístico propuesto, en coordinación con los Planes Directores del Gobierno de Navarra.
- Asegurar el mantenimiento y mejora del tejido urbano existente, así como su correcto engarce con las nuevas propuestas, estableciendo los mecanismos de ordenación, regulación y gestión de suelo, que puedan favorecer el mantenimiento de la actual población y potenciar la atracción de nuevos habitantes. Se cuidará y potenciará los restos de muralla que se conservan.
- Resolver las **necesidades** de suelo residencial, dotacional y de actividades económicas en atención a la población existente (envejecida y escasa), y al Modelo de Desarrollo urbanístico propuesto,
- Previsión de los **Sistemas Generales** adecuados para el servicio de su población, y en particular los espacios libres y zonas verdes, y dotaciones, ubicándolos en los lugares más apropiados y acordes con el servicio a prestar.
- El Plan General Municipal de Zúñiga abordará la **diversidad paisajística y ecológica** del municipio considerando en la Estrategia y Modelo Territorial, los espacios y elementos territoriales que vertebran y definen el municipio, significando en el Plan Urbanístico su funcionalidad mediante un régimen de usos coherente con los valores ambientales, paisajísticos, previamente identificados, de tal forma que quede garantizada su preservación.

a) Áreas-Enclaves de valor ambiental

En Zúñiga se constata la presencia de zonas relevantes por sus valores ambientales. La ubicación en el límite administrativo entre comunidades autónomas y la propia orografía del municipio determina que participe en la conectividad territorial entre Navarra y la CAPV, de la mano de los espacios Red Natura 2000: el ZEC Rio Ega Berón que pasa a denominarse ZEC Rios Ega y Urrederra en territorio navarro, y la ZEC Sierra de Codés, que supone la continuidad territorial con la ZEC Sierras Meridionales de Alava en el tercio sur del municipio.

Destaca la presencia de enclaves relevantes como la Reserva Natural RN 13 Barranco de Lasia, integrada en la red de espacios naturales protegidos de Navarra, y la presencia de hábitat de interés prioritario, como son los madroñales con durillo (*Viburnum tinus*) (5230\*), formaciones termófilas acantonadas en las foces del rio Ega (paraje Peñamayor), cuya singularidad radica en su escasa presencia en Navarra, carrascales (9340) y en menor medida, quejigares (9240) (Facero 79).

Estas formaciones junto con el sistema fluvial del río Ega representan los principales elementos de conectividad territorial del municipio. Prácticamente la totalidad de las masas forestales se incluyen en el MUP 331 "Sollollo" y se reparte entre la ZEC Sierra de Codés y las zonas de contacto con la ZEC Sierra de Lokiz.

Entre los valores paisajísticos destaca el Paisaje Singular del Monte Ioar, si bien Zuñiga participa de este paisaje acogiendo su extremo más septentrional.

#### b) Riesgos

En lo que referente a los riesgos y principales condicionantes territoriales a incorporar en la planificación, destacan el riesgo por inundabilidad y por incendios.

El sistema fluvial se organiza principalmente en torno al río Ega, que recibe las aguas de cauces secundarios, entre los que destaca la regata del Recabión procedente del valle de Lana. Las áreas inundables del río Ega se inscriben prácticamente en el entorno próximo al cauce principal, puesto que atraviesa foces y discurre por terrenos encajados.

En cuando a la vulnerabilidad de las masas forestales frente al riesgo de incendio, se reparte entre vulnerabilidad alta y media.

- En lo referente al **Patrimonio cultural**. Se incorporará la identificación, inventario y catálogo del patrimonio inmueble que en razón de su valor haya de ser objeto de protección singular, según los anexos PC1 y 2 del POT 4.
- Incorporación al PGM de recorridos, senderos o caminos peatonales por el suelo rústico de interés naturalístico y/o susceptibles de conformar una red municipal de accesibilidad. Cabe resaltar la "Vía Verde del ferrocarril Vasco Navarro" que discurre por el municipio y que podría potenciar algún uso relacionado con ella. Cabe señalar que no hay presencia contrastada de vías pecuarias, si bien en el caso de que la Pasada 19 (Mendoza) tuviera continuidad en Zuñiga y en el tiempo de elaboración del PGM se constatará su existencia, se incluirá en el PGM como suelo de protección.
- Ordenación y regulación urbanística de los terrenos rústicos, como suelos **No urbanizables de Preservación**, en atención a su valor agrícola, forestal o ganadero, a sus valores paisajísticos, arqueológicos, culturales o ambientales y a sus funciones de conectividad territorial, a los efectos de usar, disfrutar y disponer de los mismos conforme a su naturaleza y conforme a los usos tradicionales del municipio.
- Incorporación al PGM, con su delimitación y definición normativa ya aprobada, los suelos ya protegidos por la legislación sectorial.

## 2.2. Objetivos de interés municipal.

### En suelo urbano y urbanizable

- Reorganización de las unidades de ejecución para facilitar su desarrollo.
- Simplificación y facilitación de las posibilidades de rehabilitación o nueva construcción de viviendas que posibilite el incremento de población empadronada en el municipio.

### En suelo no urbanizable

- Considerarse necesaria la preservación de su carácter rural, por razón de su valor, actual o potencial, agrícola, ganadero, forestal, cinegético o análogo.

### **TERCERA.- Colaboración Económica.**

El presupuesto de elaboración de los trabajos de redacción del Plan General Municipal será de **100.000 €** (IVA incluido).

El Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda, Paisaje y Proyectos Estratégicos prestará la correspondiente asistencia económica para la redacción del Plan General Municipal. A tal fin podrá financiar el **80%** del importe de adjudicación del contrato correspondiente.

La solicitud de ayudas, su concesión y los abonos correspondientes se realizarán de acuerdo con lo establecido en los artículos 7, 8, 9 y 10 del Decreto Foral 145/2002.

La concesión de la correspondiente ayuda se realizará por Resolución de la Directora General de Ordenación del Territorio.

### **CUARTA.- Otras medidas de colaboración.**

Ambas partes adoptan los siguientes compromisos:

#### **4.1. Cartografía, documentación y representación.**

El Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda, Paisaje y Proyectos Estratégicos cederá la cartografía básica y temática disponible en el Sistema de Información Territorial de Navarra (SITNA), para uso exclusivamente limitado al proceso de elaboración del PGM.

La cartografía específica que el Ayuntamiento considere necesario elaborar, deberá utilizar formatos compatibles con los del Sistema de Información Territorial de Navarra (SITNA).

De forma previa a la entrada en vigor del PGM, el Ayuntamiento entregará al Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda, Paisaje y Proyectos Estratégicos el documento en formato digital.

El formato de composición y presentación del instrumento será el indicado en el Decreto Foral 253/2019, de 16 de octubre, por el que se regula el Registro de planeamiento de Navarra y el formato de presentación de los instrumentos de planificación urbanística y territorial de Navarra.

Si el Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda, Paisaje y Proyectos Estratégicos estableciese otras condiciones técnicas acerca de la cartografía informática antes de la aprobación provisional del PGM, éste deberá ajustarse a tales condiciones.

4.2. Proporcionar los ejemplares de los documentos del PGM a medida que se vayan elaborando, así como los que sean necesarios para su remisión a los correspondientes Departamentos y Organismos, de acuerdo con la tramitación que el modelo del PGM requiera.

4.3. Proporcionar toda la información útil que les sea requerida por la otra parte.

4.4. Completar las consideraciones críticas que puedan efectuarse a soluciones propuestas, con alternativas acordes con la legalidad y el Convenio.

En ningún caso se podrá imponer a ninguna de las partes condiciones o determinaciones que vulneren sus respectivas competencias.

Johic

19

#### QUINTA.- Efectos del Convenio.

La suscripción del presente Convenio es requisito previo para la concesión de la ayuda, así como para la solicitud de su abono conforme al Decreto Foral 145/2002.

La ayuda, una vez reconocida por Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda, Paisaje y Proyectos Estratégicos se abonará de manera fraccionada en la forma prevista por el artículo 10 del Decreto Foral 145/2002 previa acreditación del cumplimiento de la finalidad de la ayuda concedida, mediante la aportación de la documentación requerida y justificativa del pago de los trabajos. Para ello, en atención al artículo 6 del Decreto Foral 145/2002, será requisito indispensable que se cumplan las siguientes condiciones:

- a) Que las solicite el Ayuntamiento.
- b) Que se acredite la realización satisfactoria de lo convenido, mediante la entrega de la documentación acreditativa al Servicio de Territorio y Paisaje y la obtención del visto bueno de dicho Servicio acerca de la conformidad de la documentación aportada con el contenido de Convenio.
- c) Que exista consignación presupuestaria idónea y suficiente.

#### SEXTA.- Obligaciones del Ayuntamiento.

El Ayuntamiento de Zúñiga tendrá, además de las obligaciones que le vienen impuestas en el presente Convenio y en particular, las siguientes:

- a) Elaborar el Plan General Municipal y aprobarlo en todas las fases que sean de su competencia conforme a la Ley Foral de Ordenación del Territorio y Urbanismo, cumpliendo la finalidad de las ayudas.
- b) Permitir las actuaciones de comprobación y control técnico que efectúe el Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda, Paisaje y Proyectos Estratégicos en relación a los conceptos susceptibles de percibir ayuda y la aplicación de los fondos a los fines para los que han sido concedidos.
- c) Disponer de los libros contables, registros diligenciados y demás documentos debidamente auditados en los términos exigidos por la normativa aplicable a la entidad beneficiaria, con la finalidad de garantizar el adecuado ejercicio de las facultades de comprobación y control.
- d) Conservar los documentos justificativos de la aplicación de los fondos recibidos, incluidos los documentos electrónicos, en tanto puedan ser objeto de actuaciones de comprobación y control.
- f) Comunicar al Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda, Paisaje y Proyectos Estratégicos la obtención de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos que financien la elaboración del Plan General Municipal.
- g) Hacer constar en cualquier tipo de información, comunicación, publicidad, difusión escrita u oral que se realice la participación del Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda, Paisaje y Proyectos Estratégicos.
- h) De conformidad con lo establecido en el Decreto Foral 59/2013, de 11 de septiembre, cumplir con las obligaciones de transparencia establecidas en la Ley Foral 12/2019, de 22 de marzo, de Participación Democrática en Navarra. El incumplimiento de esta obligación conllevará las consecuencias previstas en el artículo 7 del citado Decreto Foral.

**SÉPTIMA.- Publicidad.**

En toda la publicidad que se derive de las ayudas concedidas, el Ayuntamiento hará constar la colaboración del Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda, Paisaje y Proyectos Estratégicos.

**OCTAVA.- Compatibilidad con otras ayudas.**

Las ayudas previstas en el presente convenio serán compatibles con otras ayudas que pudieran obtenerse de otras Administraciones o entes públicos o privados para el mismo fin, siempre que la suma de todas no supere el total de la inversión realizada objeto de ayuda.

**NOVENA.- Incumplimientos y pérdida de ayudas.**

De acuerdo con lo establecido en el artículo 11 del Decreto Foral 145/2002, el Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda, Paisaje y Proyectos Estratégicos podrá exigir el reintegro de las cantidades inicialmente percibidas por la entidad local cuando hayan transcurrido más de dos años desde la fecha de aprobación de la EMOT del PGM sin haberse aprobado provisionalmente el nuevo planeamiento.

Las partes acuerdan que también será causa de reintegro de las cantidades percibidas el transcurso de más de cuatro años desde la aprobación de la EMOT del PGM sin haber sido aprobado definitivamente el nuevo planeamiento.

La exigencia podrá hacerse efectiva una vez cumplido el plazo de un mes, a partir del día siguiente al de la notificación de un requerimiento de justificación de las razones de la demora, sin que este último haya sido debidamente atendido.

Los incumplimientos de las condiciones del Convenio de Colaboración que afecten negativamente a los objetivos relacionados con competencias forales podrán ser causa de pérdida total o parcial de las ayudas otorgadas, y de extinción del presente Convenio.

**DÉCIMA.- Comisión de Seguimiento**

De acuerdo con el artículo 66.4 del Texto Refundido de la Ley Foral de Ordenación del Territorio y Urbanismo, aprobado por Decreto Foral Legislativo 1/2017, de 26 de julio, se constituye la Comisión de Seguimiento para la redacción del PGM de Zúñiga hasta la aprobación definitiva del mismo.

10.1 La Comisión queda constituida por:

Como Representantes de la Entidad Local:

El alcalde	Pedro María Oteiza Díaz
La concejala	Idoia Piudo Castellón
El concejal	José Manuel González Ruiz de Zuazo
El concejal	Joseba Grandes Casado
El concejal	Raúl Valencia Abaigar

Como Representantes del Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda, Paisaje y Proyectos Estratégicos:

El Jefe de la Sección de Urbanismo  
Un/a Arquitecto/a del Servicio de Territorio y  
Paisaje,

Don Javier Redín Sarasola

*(Recomendación: designar cargos o puestos para evitar modificaciones del Convenio)*

La Comisión de Seguimiento estará compuesta por entre 3 y 5 representantes de la Entidad Local y entre 2 y 3 representantes del Departamento competente en materia de ordenación del territorio y urbanismo. Estará presidida por uno de los representantes del Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda, Paisaje y Proyectos Estratégicos.

10.2. Los cambios que pudieran efectuarse en las personas asignadas a la Comisión en el transcurso de la vigencia del Convenio, se comunicarán mutuamente entre el Alcalde y el Director del Servicio de Territorio y Paisaje, anexionándose al presente Convenio.

10.3. La Comisión de Seguimiento se regirá por el contenido de los artículos 66 y 71 del DFL 1/2017.

En lo no previsto en el presente Convenio, será de aplicación lo dispuesto en la legislación básica de procedimiento administrativo sobre funcionamiento de órganos colegiados.

#### **UNDÉCIMA.- Naturaleza del Convenio.**

El presente Convenio tiene naturaleza administrativa y se rige por lo dispuesto en el Decreto Foral 145/2002, de 2 de julio, por el que se regula la cooperación interadministrativa en la elaboración y aplicación del planeamiento urbanístico, en la Ley Foral 11/2019, de 11 de marzo, de la Administración de la Comunidad Foral de Navarra y del Sector Público Institucional Foral y por el resto de legislación que resulte aplicable.

Las discrepancias relativas a la interpretación y cumplimiento del presente convenio están sujetas a la jurisdicción de los tribunales del orden contencioso-administrativo con sede en Pamplona.

Leído cuanto antecede y en prueba de conformidad, se suscribe el presente Convenio, por duplicado ejemplar y a un solo efecto jurídico, en el lugar y fecha que se indican en el encabezamiento.

En representación de la Administración de la  
Comunidad Foral de Navarra

Por el Ayuntamiento de Zúñiga



Fdo.: José María Ayerdi Fernández de  
Barrena, Consejero de Ordenación del  
Territorio, Vivienda, Paisaje y Proyectos  
Estratégicos

Fdo.: Alcalde.  
Pedro María Oteiza Díaz



**LANKIDETZA HITZARMENA, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuaren eta Zuñigako Udalaren artekoa, Zuñigako Udal Plan Orokorra egiteko**

Iruñean, 2022ko irailaren 19an.

**BILDU DIRA:**

Alde batetik,

José María Ayerdi Fernández de Barrena jauna, Nafarroako Foru Komunitateko Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuko kontseilaria.

Eta, bestetik,

Pedro María Oteiza Díaz, Zuñigako Udaleko alkatea

**ESKU HARTZEN DUTE:**

Batak Nafarroako Foru Komunitateko Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuaren izenean eta hura ordezkatzuz, eta besteak Zuñigako Udalaren izenean eta hura ordezkatzuz:

**AZALTZEN DUTE:**

1. Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuan, eta bereziki haren 17., 19., 20.2, 21. eta 66.3 artikuluetan ezarritakoari jarraikiz, aldeek adierazten dute lankidetzan aritu nahi dutela udal plan orokorra egiteko, hirigintza lankidetzako hitzarmena sinaturik eta bertan adierazten diren baldintzak beren gain harturik.
2. Bi aldeek adostu dute lankidetzaren hitzarmen hau sinatzea, Hirigintza plangintza prestatu eta aplikatzearen arloan, administrazioen arteko lankidetzaren arautzen duen uztailaren 2ko 145/2002 Foru Dekretuan xedatuari jarraikiz, ondotik agertzen diren klausulekin bat.
3. Horretarako, Zuñigako Udalak, uztailaren 2ko 145/2002 Foru Dekretuaren 4.3 artikuluan xedatuari jarraikiz, 2021eko apirilaren 9an erabaki zuen bere gogoa aditzera ematea udal plan orokorra (hemendik aitzina, UPOa) prestatzeko, aipatu foru dekretuan ezarritako arauak jarraikiz.

## ESTIPULAZIOAK:

### LEHENA.- Printzipio orokorrak

Zuñigako UPOak abiapuntutzat hartu behar ditu hirigintzaren printzipio inspiratzaileak, horiek lurraldearen eta hirigintzaren egungo errealitatera egokitzeko.

UPOa prestatzeko metodologiak parte-hartze publikoaren maila egokia eta legezkoa proposatuko du, eta Udalak etengabeko jarraipena egingen du.

### BIGARRENA.- Xedeak

Ondoren deskribatzen dira alderdiek hitzarmen honetarako adostu dituzten helburuak, baina kontuan hartu behar da aldatzen ahalko direla, behar bezala oinarritutako arrazoiak badaude eta hirigintzako eta lurralde-antolamenduko gaiekin zerikusia badute, organo eskudunek alde zuzenetik erabakia hartuta.

Udal xedeak aldatzen ahalko dira informazio eta parte-hartze publikoaren azterketan eta diagnostikoan oinarriturik. Aldaketa horiek ez dute berez ekarriko kalkulaturako aurrekontua handitzerik, nahiz eta gehikuntza hori modu arrazoituan hitzartzen ahalko den justifikatutzat jotzen denean.

#### 2.1. Foru intereseko helburuak:

- UPOak erantzunen die uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategineko (hemendik aitzina, LAHFLTB) **helburu eta printzipio** orokorrei, eta, zehazki, honako helburu hauek izanen ditu: lurraldea okupatzeko estrategia eta eredia definitzea udalerrirako, udalerraren garapen jasangarria, eta bertako herritarren bizikaltatea hobetzea.
- **Garapen jasangarriari** dagokionez, honako hauek sustatuko ditu UPOak: Herrigunearen hazkunde trinkoa, eraikinak birgaitzea, energia eraginkortasuna hobetzeko jarduketak, klima aldaketaren ondorioekiko kalteberatasuna murriztea, mugikortasun jasangarria, irisgarritasuna eta paisaia zaintzea.
- UPOa gizartearen behar eta nahien arabera egingen da, herritarren **parte-hartze** ahalik eta zabalena sustatuz, eta herritarren ezaugarrietara egokituta.
- UPOan **hirigintza inklusiborako** irizpideak sartuko dira, espazio publikora ekarriko dira herritarrek eguneroko bizitzan egiten dituzten eskaerak, pertsona guztien autonomia sustatuko da eta erantzuna emanen zaie sexua, adina edo mendekotasuna dela-eta herritar kalteberenen beharrian sozialei.
- Erdialdeko Eremuetako Lurraldearen Antolamenduko Planean (4. LAPa) ezarritako aurreikuspenak, gidalerroak eta determinazioak errespetatu eta garatuko ditu, aintzat hartutako ardatz estrategikoetan: Natura- eta kultura-ondarea, hiri-sistema eta azpiegiturak.
- UPOak tresna **erraza eta praktikoa** izan behar du, biztanleek ulertzeko modukoa, eta udalerrian jarduerari (soziala eta ekonomikoa) eusteko baliagarria. Halaber, lurzorua antolatzeke, arautzeke eta kudeatzeko mekanismoak ezarri beharko ditu, egungo

biztanleriari eusten lagundu eta biztanle berriak erakartzeko, hori guztia Zuñigako biztanleriaren ezaugarriak (dentsitatea eta zahartze-indizea) kontuan hartuta.

- UPOak udalerrian hiri-lurzoru eta lurzoru urbanizagarri gisa sailkatzen den lurzoru guztiaren antolamendu xehatua ezarriko du, eta helburu hori LOEEan ezarriko du printzipio gisa.
- UPOak kokatuta dagoen lurralde-inguruneari erreparatuko dio, eta hurbileko udalerriekiko harremana indartuko du (Mendaza, Lana...), despopulazioaren aurrean bere lurralde-posizioa indartuko duten sareak josteko.
- Proposatutako hirigintza-ereduak eskatutako **oinarrizko azpiegiturak** (hornidura, saneamendua, hondakinak...) aurreikusi eta eguneratzea, kasua denean, Nafarroako Gobernuaren plan zuzentzaileekin koordinatuta.
- Egungo hiri-ehuna mantentzen eta hobetzen dela ziurtatzea, bai eta proposamen berriekin behar bezala lotzen dela ere, lurzorua antolatzeko, arautzeko eta kudeatzeko mekanismoak ezarri, egungo biztanleriari eusten lagundu eta biztanle berriak erakartzeko. Gelditzen diren harresi hondarrak zaindu eta indartuko dira.
- Bizitegirako, zuzkiduretarako eta jarduera ekonomikoetarako lurzoru **premiak** asetzea, dagoen biztanleria (zahartuta eta urria) eta proposatutako hirigintza-garapeneko eredia aintzat hartuta.
- Herritarren zerbitzurako **sistema orokor** egokiak aurreikustea, bereziki espazio libreak eta berdeguneak, eta zuzkidurak, eman beharreko zerbitzurako leku apropos eta egokienetan kokatuta.
- Zuñigako udal plan orokorrak udalerriko **paisaia- eta ekologia-aniztasunari** helduko dio. Horretarako, lurralde estrategia eta ereduan kontuan hartuko ditu udalerria egituratzen eta taxutzen duten lurraldeko eremu eta elementuak, eta hirigintza planean haien funtzionaltasuna zehaztuko du, aurrez identifikatutako ingurumen eta paisaia baliokin koherentea den erabilera-araubide baten bidez, haien babesa bermatuta gelditu dadin.

a) Ingurumen balioko eremu eta enklabeak

Zuñigan, beren ingurumen baliokengatik garrantzitsuak diren eremuak daudela egiaztatu da. Autonomia erkidegoen arteko muga administratiboan kokatuta izateagatik eta udalerraren orografiagatik beragatik Nafarroaren eta EAEn arteko lurralde-konektagarritasunean parte hartzen du, Natura 2000 Sareko guneen bidez: Azazetako Ega ibaia KBEa, zeina Ega eta Urederra ibaien KBEa izatera igarotzen baita Nafarroako lurretan, eta Kodesko mendilerroa KBEa, udalerraren hegoaldeko herenean dagoena, Arabako Hegoaldeko Mendilerroen KBEaren jarraipena.

Nabarmentzekoa da enklabe garrantzitsuak daudela, hala nola Lasiako erreka-zuloa (RN-13) natura-erreserba, Nafarroako Naturagune Babestuen Sarearen barnean dagoena, eta lehentasuneko intereseko habitatak ere bai, hala nola gurbiztiak gogortxuarekin (*Viburnum tinus*) (5230\*), Ega ibaiaren arroiletan (Peñamayor alderdian) sakabanatutako formazio termofiloak, bereziak direnak Nafarroan gutxi daudelako, karraskadiak (9340) eta, neurri txikiagoan, erkameztiak (9240) (79. fazeria).

Formazio horiek dira, Ega ibaiaren sistemarekin batera, udalerriko lurralde-konektagarritasuneko elementu nagusiak. Ia oihan masa guztiak "Sollollo" 331.

06/12/20

1

OPMan sartzen dira, eta Kodesko mendilerroa KBEan eta Lokizko mendilerroa KBEa ukitzen duten eremuen artean banatuta daude.

Paisaia-balioen artean, Joar mendiko paisaia berezia nabarmentzen da, nahiz eta paisaia horren iparraldeko muturra baino ez dagoen Zuñigan.

b) Arriskuak

Plangintzan sartu beharreko arriskuen eta lurralde-baldintzatzaile nagusien artean, uholde eta sute arriskuak nabarmentzen dira.

Ibai sistema, batez ere, Ega ibaiaren inguruan antolatzen da. Egak bigarren mailako ibilguetako urak jasotzen ditu, eta horien artean Lanatik datorren Errekabion erreka nabarmentzen da. Ega ibaiko ia uholde eremu guztiak ibilgu nagusitik hurbil daude, arroiletatik eta toki estuetatik igarotzen delako.

Sute arriskuari dagokionez, ohian masek kalteberatasun handia edota ertaina dute.

- **Kultur ondareari** dagokionez. Bere balioagatik babes berezia behar duen ondare higiezinaren identifikazioa, inbentarioa eta katalogoa erantsiko dira, 4. LAPeko PC1 eta PC2 eranskinen arabera.
- UPOan landa-lurzorutik igarotzen diren ibilbideak, bidezidorrak edo oinezkoentzako bideak sartzea, naturaren aldetik interesa badute edota irisgarritasuneko udal sare bat osa badezakete. Nabarmentzekoa da udalerria zeharkatzen duen Vasco-Navarro trenaren bide berdea; harekin lotutako erabileraren bat bultzatu daiteke. Esan behar da ez dagoela egiaztatuta altxonbideak daudenik. Hala ere, 19. iraganbideak (Mendoza) Zuñigan jarraipena badu eta UPOa egiten den bitartean egiaztatzen bada badagoela, babestu beharreko lurzoru gisa sartuko da UPOan.
- Landa-lurren antolamendua eta hirigintza-erregulazioa, **gorde beharreko lurzoru urbanizaezin** gisa sailkatuta, kontuan hartuta haien nekazaritza-, baso- edo abeltzaintza-balioa, paisaia-, arkeologia-, kultura- edo ingurumen-balioak, eta lurralde-konektagarritasuneko funtzioak, beren izaeraren eta udaleko tradiziozko erabileraren arabera erabili, haietaz gozatu eta xedatu ahal izateko.
- Legeria sektorialak jada babestutako lurzoruak UPOan sartzea, dagoeneko onetsitako mugaketarekin eta arau zehatzekin batera.

## 2.2. Udal intereseko helburuak.

### Hiri-lurzoruan eta lurzoru urbanizagarrian

- Exekuzio unitateak berrantolatzea, haien garapena errazteko.
- Etxebizitzak birgaitzeko edo berriak eraikitzeko aukerak sinplifikatzea eta erraztea, udalerrian erroldatutako biztanleen kopurua handitzen laguntzeko.

### Lurzoru urbanizaezinean

- Beharrezkotzat jo dadila bere landa izaera gordetzea, nekazaritzarekin, abeltzaintzarekin, oihanekin, ehizarekin edo antzekoekin lotutako bere balioagatik (gaur egun duena edo etorkizunean izan dezakeena).

**HIRUGARRENA.- Lankidetza ekonomikoa.**

Udal plan orokorra idazteko lanen aurrekontua **100.000 eurokoa** (BEZa barne) izanen da.

Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak laguntza ekonomikoa emanen du udal plan orokorra idazteko. Horretarako, adjudikatzen den kontratuaren zenbatekoaren **%80** finantzatzen ahalko du.

Laguntzak eskatu, eman eta ordainduko dira bat etorriz 145/2002 Foru Dekretuaren 7, 8, 9 eta 10. artikuluetan ezarritakoarekin.

Dagokion laguntza Lurralde Antolamenduko zuzendari nagusiaren ebazpen bidez emanen da.

**LAUGARRENA.- Beste lankidetza neurri batzuk.**

Bi alderdiek konpromiso hauek hartu dituzte:

**4.1. Kartografia, dokumentazioa eta ordezkartza.**

Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak Nafarroako Lurraldeari buruzko Informazio Sistemari (SITNA) eskura dagoen kartografia oinarrikoa eta tematikoa lagako ditu, UPOa prestatzeko prozesuan baizik ez erabiltzeko baldintzapean.

Udalak beharrezkotzat jotzen badu kartografia espezifikoa prestatzea, hartan erabiltzen diren formatuek bateragarriak izan beharko dute Nafarroako Lurraldeari buruzko Informazio Sistemarekin (SITNA).

UPOa indarrean sartu aurretik, Udalak formatu digitalean emanen dio dokumentua Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuari.

Tresna osatzeko eta aurkezteko formatua izanen da urriaren 16ko 253/2019 Foru Dekretuan adierazitakoa, zeinaren bidez arautzen baitira Nafarroako Plangintzaren Erregistroa eta Nafarroako hirigintza eta lurralde plangintzarako tresnak aurkezteko formatua.

Baldin eta Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak kartografia informatikoari buruzko beste baldintza tekniko batzuk ezartzen baditu UPOa behin-behinean onetsi aurretik, plana baldintza horietara egokitu beharko da.

4.2. UPOko dokumentuen aleak egin ahala ematea, baita behar diren departamentu eta erakundeei bidaltzeko behar direnak ere, UPOaren ereduak behar duen tramitazioarekin bat.

4.3. Beste alderdiak eskatzen dizkion jakingarri baliagarri guztiak ematea.

4.4. Proposatutako konponbideen gaineko kontsiderazio kritikoak osatzea, legediarekin eta hitzarmenarekin bat heldu diren aukerak proposatuz.

Alderdietako bati ere ezin izanen zaio inposatu bere eskumenak urratzen dituen baldintza edo determinaziorik.

**BOSGARRENA.- Hitzarmenaren ondorioak.**

Hitzarmen hau sinatzea alde zuzeneko baldintza da laguntza emateko eta ordainketa eskatzeko, 145/2002 Foru Dekretuaren arabera.

Behin Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak laguntza onartuz gero, zatika ordainduko du 145/2002 Foru Dekretuak 10.

10/12/15

17

artikuluaren ezartzen duenari jarraikiz, emandako laguntzaren xedea bete dela frogatu ondoren (lanak ordaindu direla egiaztatzeko eskatzen diren dokumentuak aurkeztuta). Horretarako, 145/2002 Foru Dekretuaren 6. artikularekin bat, honako baldintza hauek bete behar dira:

- a) Udalak eskatzea.
- b) Hitzartutakoa zuzen bete dela egiaztatzea, egiaztagirak Lurralde eta Paisaia Zerbitzuaren eskuetan utziz, eta zerbitzu horren oniritzia eskuratuz, aurkeztutako dokumentazioa hitzarmenaren edukiaren bat heldu den ikusi ondoren.
- c) Aurrekontu-kontsignazio egokia eta nahikoa izatea.

### **SEIGARRENA.- Udalaren betebeharrak.**

Zuñigako Udalak, hitzarmen honetan ezartzen zaizkion betebeharez gain, honako hauek ere izanen ditu:

- a) Udal plan orokorra egitea eta onestea bere eskumeneko fase guztietan, bat etorritik Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bateginarekin, laguntzen helburua betez.
- b) Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuari laguntza egin beharreko egiaztapenak eta kontrol teknikoak egiten uztea, laguntza jaso dezaketen kontzeptuei eta funtsak eman diren xedeetarako erabiltzeari dagokienez.
- c) Kontabilitate liburuak, erregistro eginbidetuak eta gainerako agiriak behar bezala auditatuak izatea, entitate onuradunari aplikatzen zaion araudian eskatzen den bezala, egiaztapen eta kontrol ahalmenak behar bezala betetzen direla bermatzeko.
- d) Jasotako funtsen aplikazioari buruzko frogagiriak gordetzea, agiri elektronikoak barne, egiaztapen eta kontrol lanen xede diren bitartean.
- f) Udal plan orokorraren prestaketa finantzatzeko lortutako beste laguntza, dirulaguntza, diru-sarrera eta baliabide guztien berri ematea Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuari.
- g) Egiten diren informazio, komunikazio, publizitate eta idatzizko zein ahozko hedapen guztietan jakinaraztea Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak parte hartzen duela.
- h) Irailaren 11ko 59/2013 Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera, Nafarroako Parte-hartze Demokratikoari buruzko martxoaren 22ko 12/2019 Foru Legean ezarritako gardentasun-betebeharrak betetzea. Betebehar hori ez betetzeak aipatutako foru dekretuaren 7. artikuluan aurreikusitako ondorioak ekarriko ditu.

### **ZAZPIGARRENA.- Publizitatea.**

Emandako laguntzen inguruko publizitate guztietan Udalak adierazi beharko du Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuaren laguntza daukala.

### **ZORTZIGARRENA.- Bateragarritasuna beste laguntza batzuekin.**

Hitzarmen honetan aurreikusitako laguntzak bateragarriak izanen dira beste administrazio batzuek edo erakunde publiko edo pribatuak xede bererako ematen dituzten beste batzuekin, baldin eta denen batura ez bada laguntzaren xede den inbertsioa baino gehiago.

### **BEDERATZIGARRENA.- Baldintzak ez betetzea eta laguntzak galtzea.**

145/2002 Foru Dekretuaren 11. artikuluan ezarritakoarekin bat, toki entitateak hasieran jasotako zenbatekoak itzultzeko eskatzen ahalko du Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak, baldin eta bi urte baino gehiago iragaten badira UPOaren LOEEa onesten den egunetik plan berria behin-behinekoz onetsi gabe.

Alderdiek adosten dute jasotako zenbatekoak itzultzeko kausa izanen dela, halaber, lau urte baino gehiago iragatea UPOaren LOEEa onesten denetik plan berria behi betiko onetsi gabe.

Eskakizuna hilabeteko epea igaro ondoren gauzatzen ahalko da, atzerapenaren arrazoiak justifikatzeko errekerimendua jakinarazi eta biharamunetik zenbatzen hasita, errekerimenduari behar bezala erantzun ez bazaio.

Lankidetzaren hitzarmenaren baldintzak ez betetzeak, hala eginda kalte egiten zaienean Foru Komunitatearen eskumenekin ikusteko duten xedeei, emandako laguntzak galtzea ekarriko du, osorik edo zati batean, baita hitzarmen hau azkentzea ere.

### **HAMARGARRENA.- Jarraipen Batzordea.**

Bat eginez uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 66.4 artikularekin, Zuñigako UPOa idazteko Jarraipen Batzordea eratu da, plana behin betiko onetsi arte.

10.1 Honako hauek osatuko dute Batzordea:

Toki entitatearen ordezkariak:

Pedro María Oteiza Díaz	alkatea
Idoia Piudo Castellón	zinegotzia
José Manuel González Ruiz de Zuazo	zinegotzia
Joseba Grandes Casado	zinegotzia
Raúl Valencia Abaigar	zinegotzia

Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuaren ordezkari gisa:

Javier Redín Sarasola jauna Hirigintza Ataleko burua

Lurralde eta Paisaia Zerbitzuko arkitekto bat,

*(Gomendioa: karguak edo postuak izendatzea hitzarmenean aldaketak egin beharrik ez izateko)*

Jarraipen Batzordea toki entitateko 3-5 ordezkariak eta lurraldearen antolamenduari eta hirigintzaren arloan eskumena duen departamentuko 2-3 ordezkariak osatuko dute. Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuaren ordezkarietako bat izanen da Batzordeko burua.

10.2. Hitzarmenak indarra duen bitartean aldaketarik egiten baldin bada Batzordeari atxikitako pertsonetan, elkarri jakinarazi beharko diote alkateak eta Lurralde eta Paisaia Zerbitzuko zuzendariak; aldaketak hitzarmenari gehituko zaizkio.

10.3. Jarraipen Batzordea 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 66. eta 71. artikuluen edukiaren arabera arautuko da.

Hitzarmen honetan aurreikusten ez den orotan aplikatzekoa izanen da administrazio prozedurari buruzko oinarrizko legeriak kide anitzeko organoen funtzionamenduaz xedatzen duena.


### **HAMAIKAGARRENA.- Hitzarmenaren izaera.**

Hitzarmen hau administratiboa da, eta honako hauetan arautzen dena aplikatuko zaio: uztailaren 2ko 145/2002 Foru Dekretua, hirigintza plangintza prestatu eta aplikatzearen arloan, administrazioen arteko lankidetzara arautzen duena; 11/2019 Foru Legea, martxoaren 11koa, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzkoa; eta aplikatu beharreko gainerako legedia.

Hitzarmen hau interpretatzean edo betetzean sortzen diren desadostasunak Iruñean egoitza duten administrazioarekiko auzien epaitegien jurisdikzioari loturik egonen dira.


Aurreko guztia irakurri ondoren eta ados daudela erakustearren, honako hitzarmen hau sinatzen dute, bi aletan eta ondorio juridiko bakarrarekin, idazpuruan adierazitako tokian eta egunean.

Nafarroako Foru Komunitateko  
Administrazioaren izenean



Stua.: José María Ayerdi Fernández de  
Barrena, Lurralde Antolamenduko,  
Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu  
Estrategikoetako Departamentuko  
kontseilaria

Zuñigako Udalaren izenean



Stua.: Pedro María Oteiza Díaz, alkatea